

MASTER AMAIERAKO LANAREN INGURUAN

HELBURUAK

Abokatutzako masterrean ikasleei eskatzen zaie egiazta dezatela ikertzeko, eztabaidarako eta ahozko komunikaziorako gaitasuna dutela, baita analisirako gaitasuna ere baliabide bibliografikoak eta elektronikoak –batez ere datu base eta katalogo juridikoak– erabiltzerakoan.

Master Amaierako Proiektuaren edo Master Amaierako Lanaren (aurrerantzean MAL) helburua da graduondoko mailarekin lotutako gaitasunak ebaluatzea. Horrela, ikasleak gai izango dira lanbidean aritzean edo gaur egungo gaiei buruzko ikerketa juridikoa garatzean planteatuko zaizkien arazo juridiko zehatzei aurre egiteko.

XEDEA

MALa da ikasle bakoitzak irakasle baten zuzendaritzapean egin behar duen bakarkako memoria, azterlan, txosten edo irizpen originala eta profesionala, abokatutzaren arlo desberdinekin lotutakoa eta masterrean landutako gai baten ingurukoa. MALaren gai zehatza ikasleak aukeratuko du.

Masterrean emandako irakasgaietan landutako gai zehatz bati buruzko azterlana izan daiteke, edo, bestela, ikasleak kanpoko praktiketan landu duen espedientearekin zerikusia duen gai bati buruzkoa, eta bertan jasoko dira masterrean diziplina anitzeko ikuspegitik eskuratutako ezagutza eta gaitasunak.

MALaren zuzendariak aholkatutako materialak erabili beharko dira lanean eta azken ondorioak jasoko dituen atala izango du lanak.

Ikasleak frogatu beharko du eskuratu dituela masterrak ematen dituen edukiak, gaitasunak eta trebetasunak. Horretarako, datuak bilatzeko, kudeatzeko eta kritikoki interpretatzeko gaitasuna erakutsiko duen lana aurkeztu eta defendatu beharko du, erabilera akademikoen arabera; eta aztergaiaren inguruan gogoeta pertsonala egin beharko du, legerian, jurisprudentzian eta dokumentu edo bibliografia iturrietan oinarrituta.

ZUZENDARITZA

MALa Zuzenbide Fakultatean eskolak ematen dituen irakasle DOKTORE edo ikertzaile baten gidaritzapean egingo da, ikasleak aukeratuko duena. Horrek masterreko Batzorde Akademikoari jakinaraziko dizkio gaiaren behin-behineko izenburua eta zuzendariaren izena; horrela egin ezean, batzordeak abiaraziko du bere kabuz gaia eta zuzendaria esleitzeko prozedura.

Zuzendariaren eginkizuna izango da ikasleari aukeratutako gaia bideratzen laguntzea. Horretarako, bibliografia garrantzitsuenari buruzko gomendioak eta gaiarekin lotutako legeria eta jurisprudentziaren buruzko gomendioak emango dizkio, eta idazketa material eta formalerako jarraibideak.

Zuzendariaren ardura izango da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzea eta lana egiteko orientazioa ematea. Ezarritako helburuak betetzen direla zainduko du eta defentsa egin aurreko txosten idatzia prestatuko du, epaimahaiari helaraziko zaiona.

MALa zuzendari talde baten gidaritzapean ere egin ahal izango da, eta, halakoetan, aurreko ikasturtean masterrean eskolak eman zituzten abokatuak zuzendari izan daitezke, beren borondatez eta ordainsaririk jasotzeke; ikasleak MALaren zati bat edo MAL osoa praktika hitzarmen baten babesean egiten badu, ikasleak jardungo duen erakunde edo organismoko tutore batek zuzendu ahal izango du lana. Edonola ere, zuzendarietako bat beti izan beharko da Zuzenbide Fakultatean eskolak ematen dituen irakasle bat.

HIZKUNTZA

MALa Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin, aurkeztu eta defendatu beharko da, bere osotasunean.

ESTILO ARAUAK

Lanak 40.000 eta 80.000 karaktere arteko luzera izango du, espazioak barne, eta DIN-A4 neurriko orrietan inprimatzeko formatuan egon beharko da. Letra tipo eta tamaina hauek erabiliko dira: Garamond (12 pt), Times New Roman (12 pt) edo Arial (11 pt).

Alderdi formalei dagokienez (aurkezpena, aipamenak, bibliografia, atalen zenbatze eta ordenazio egokia, ondorioen azalpena eta abar), normalean erabili ohi diren arauak errespetatuko dira. Besteak beste, honako arau hauek erabiltzea gomendatzen da: Harvard estiloa, MLA (Modern Language Association of America) estiloa, APA (American Psychological Association) estiloa, edo ISO 690 arauak.

Ikasleak bereziki arreta handiz jokatu beharko du testuak parafrasiaren bidez erreproduzitzerakoan. Plagioa lanak deskalifikatzeko arrazoia izango da, eta hitzez hitzezko aipamenetatik eta dokumentazio lan zorrotzetik bereizi behar da.

Azalean informazio hau agertu beharko da:

- Unibertsitatearen eta kasuan kasuko abokatuen elkargoaren logo ofizialak. - Lana aurkezten den masterraren izena.
- Lanaren izenburu osoa.
- Egilea (“Egilea:” eta ondoren izen-abizen osoak).
- Zuzendaria (“Zuzendaria:” eta ondoren izen-abizen osoak).
- Ikasturtea eta lana gordailuan utzi den data

MALa GORDAILUAN UZTEA ETA LANAREN DEFENTSA

MALaren zuzendariak masterreko idazkaritzara helaraziko du txosten bat lanaren defentsa baino lehen, atxikitako I. eranskinaren arabera, lana ondoko paragrafoan aurreikusitako aldi gordailuan uzteko. Zuzendariak bere ustez garrantzitsuak diren ohar guztiak jasoko ditu txostenean, eta, nahi izanez gero, MALari ematen dion kalifikazioa ere adierazi ahalko du.

Ikasleek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte masterreko idazkaritzan:

- (1) MALa defendatzeko eskaera orria, II. eranskinaren arabera.
- (2) Lanaren kopia bat PDF formatuan, posta elektronikoz bidaliko dena helbide hauetako batera: secretaria.fac.derecho-bi@ehu.eus (Leioako ikasleak) edo secretaria.fac.derecho-gi@ehu.eus (Donostiako ikasleak). Masterreko idazkaritzak euskarri informatikoan dauden lanaren kopiak (posta elektronikoz bidalitako lana) helaraziko dizkie epaimahaiko kideei.

Lanak gordailuan utzi ondoren, eta kontuan hartuta aurkeztutako lanen kopurua, Batzorde Akademikoak erabakiko du lanen defentsa non, noiz eta zer ordutan egingo den.

MALaren defentsa ekitaldi publikoan egingo da epaimahaiaren aurrean. Epaimahai hori unibertsitatean zein elkargoan eratu ahal izango da eta zuzendaria ezin izango da kideen artean egon.

Defentsak zati hauek izango ditu: aurkezpena eta galderetarako txanda. Aurkezpenean ikasleak bere MALaren helburuak, metodologia, edukiak eta ondorioak azaldu beharko ditu, epaimahaiak aurretik zehaztutako denboran (hogei minutu gehienez). Ondoren, epaimahaiak balorazioak, iruzkinak edo galderak egingo ditu eta ikasleak horiei erantzun ahal izango die.

EPAIMAHAIEN IZENDAPENA

Zuzenbide Fakultatean eskolak ematen dituzten irakasle doktoreak baino ezingo dira izan master amaierako lanen epaimahaietako kide. Batzorde Akademikoak osatuko du epaimahaia eta kideak ere batzordeak izendatuko ditu, masterrean eskolak ematen dituzten sailek bidalitako duten irakasleen proposamenaren arabera.

Epaimahai bakoitzak hiru kide izango ditu eta, gutxienez, ordezeko bat. Master amaierako lanen zuzendari edo tutorekideak ezin dira izan, inola ere, eurek gidatutako lana ebaluatuko duen epaimahaiko kide, nahiz eta epaimahaiak –zuzendariak egindako balorazio txostena irakurrita– baimendu egin ahalko duen haiek deliberazio prozesuan egotea.

EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

Ikaslearen aurkezpena bukatuta eta zuzendariaren txostena irakurrita, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa erabakiko du. Ebaluazioa egingo da MALaren irakaskuntza gidan argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian zehaztutakoaren arabera.

Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta letra ere adieraziko da:

0,0 - 4,9: Suspentso (S)

5,0 - 6,9: Nahiko (N).

7,0 - 8,9: Oso ongi (O)

9,0 - 10: Bikain (B)

Masterreko Batzorde Akademikoak «Ohorezko Matrikula» eman ahalko die 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei, baldin eta epaimahaiak hala proposatu badu defentsa ekitaldiaren aktan, deialdiko kalifikazio guztiak ikusi ondoren. Kopurua ezin izango da izan matrikulatutako ikasleen ehuneko bostetik gorakoa.

Gaiari buruzko gaitasun zehatzez gain, MALa egin eta defendatzean ikasleak MAL irakasgaiari dagozkion gaitasun zehatzak lortu dituela erakutsi beharko du. Hauek dira gaitasun horiek:

(a) Argudiatze eta arrazoibide kritikorako teknikak egoki erabiltzea.

(b) Publiko espezializatuari informazioa helarazteko ahalmena ematen dioten ahozko eta idatzizko komunikazio prozesuak menderatzea.

(c) Ikasteko prozesua modu jarraitu eta autonomoan kudeatzea.

(d) Gai batean espezializatzea, lan merkatuan arrakastaz sartu ahal izateko edo bestelako espezializazio zein birziklatze ikasketak egiten jarraitzeko.

Ikasleak MALa gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak emango dizkio txosten batean, lana berriz ebaluatzen denerako. Txosten hori ikasleari eta zuzendariari bidaliko zaie.

Epaimahaiko idazkariak beteko ditu GAUR aplikazioan Master Amaierako Lanaren kalifikazio aktak, behar den moduan. Horretarako, hiru egun balioudun izango ditu MALaren defentsa datatik aurrera kontatzen hasita.

Master amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraituz egingo dira, baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, fakultateko Erreklamazio Batzordeak emango du erabakia; erabaki horren kontra gorako errekurtoa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

ARTXIBOA ETA ERABILERA

Ebaluatutakoan, MALa artxiboetan gordeko da, edo, behar izanez gero, erakundearen gordailuetan. Lanen oinarrizko datuak eta laburpenak zabaldu ahal izango dira, edozein baliabide tekniko erabilita.

